# TOLOSA • PREBENTZIO MAHAIA

*Zein erabaki hartu dira orain arte?*

## MARTXOA

### M12

+ **PREBENTZIO MAHAIA ERATU**
+ ZERBITZU ETA JARDUERAK ETEN
  Eguneko Arreta Zerbitzua, kiroldegia, liburutegia, Leidor, Topic eta Musika Eskola itxita eta adineko pertsonei zein haurrei zuzendutako jarduerak etenda.

### M13

**» OSASUN LARRIALDIA (Eusko Jaurlaritza)**

+ AURREZ AURREKO ARRETA, HITZORDUA ESKATUTA
  Arreta telematikoa eta telefono bidezkoa lehenetsi.
+ ERAIKIN PUBLIKO GUZTIAK ITXI
  Kultur Etxea, bilera gelak, Topagunea, Abastos eta Emeterio Arrese.
+ **GARBIKETA ZERBITZUA AREAGOTU**
  Eraikin publikoetan, Udaltzaingoan eta Udaten.
+ AZOKA BERTAN BEHERA
  Prebentzio modura, jende pilaketak ekiditeko.

### M14

**» ALARMA EGOERA (Espainiako Gobernua)**

+ TABERNA ETA SALTOKIAK ITXI
  Eusko Jaurlaritzaren aholkuei jarraituta.
+ DESPLAZAMENDUAK MUGATU ETA KONTROLATU
  Udaltzaingoa herritarrei argibideak ematen.

**01 ASTEA**

### M16

+ ARRETA BULEGO GUZTIAK ITXI
+ ADMINISTRAZIO EPEAK ETEN
+ TELELANA ETA MALGUTASUNA
  Ordenagailuen prestaketa etxetik lan egiteko.
+ **OPOSIZIOA PREBENTZIO MAHAIAN**
+ **KOMUNIKAZIOA AREAGOTU**
  Kanpora zein barrura begira udaletxeko komunikazio kanal guztiak erabilita.

### M17

+ **HIRIBUS ZERBITZUA MURRIZTU, TAO BERTAN BEHERA**

### M18

+ **HONDAKIN BILKETA ZERBITZUA MANTENDU**
  Hondakinak nola kudeatu positiboak dauden etxebizitzetan. Argibideak herritarrei.
+ **ETXEAN KIROLA EGITEKO APP**
+ **KALE GARBIKETA INDARTU**

### M19

+ **GIZARTE ZERBITZUAK, HERRITARREN BEHARRETARA**
  Behar bereziak dituzten herritarren beharrei erantzun: kalteberatasun egoeran daudenak, adineko pertsonak, bazterkeria edo menpekotasun egoeran daudenak, jangela sozialekoak eta Etxez Etxeko erabiltzaileak.
+ **INDARKERIA MATXISTA JASATEN DUTEN EMAKUMEEN ARRETA ZERBITZUA INDARTUTA**
+ **BABES ZIBILA LANDA EREMUAN**
+ **LAGUNTZA SAREA EGITURATZEN**
  "Auzolanean Tolosa" boluntario taldearekin eta beste hainbat eragilerekin bilerak (Gurutze Gorria, DYA, Babes Zibila).

### M20

**» ALARMA EGOERA LUZAPENA (Espainiako Gobernua)**

+ **ADINEKO PERTSONEI DEIAK**
  Bakarrik bizi diren 70 urtetik gorako pertsonei deiak, egoera ezagutu eta beharrak bideratzeko.

**02 ASTEA**

### M23

+ **IKASTAROAK ONLINE**
  Tolosatzen Eskola Irekiaren baitan, Entzute aktibo eta enpatiari buruzko ikastaroa.
+ ESKAKIZUN ETA GOMENDIOAK HERRITARREI
  Etxean geratu, erosketak astean behin egin, arauak errespetatu eta elkar lagundu.

### M24

+ BOLUMEN HANDIKO HONDAKINEN BILKETA ZERBITZUA BERTAN BEHERA

### M25

+ **HAINBAT ERAGILEREKIN ELKARLANEAN**
  Bideo-dei bidezko bilerak eragile, kolektibo eta erakundeekin.
+ **NEURRI EKONOMIKOAK AZTERTZEN**
  Erabakiak zuhurtziaz eta lasaitasunez.
  Zerga arloko neurriak aztertzen.
+ UDAL LANGILERIA BEHARRETARA EGOKITZEN
  Sail guztiak krisiari aurre egiteko lanean eta eginkizunen berrantolaketa.

### M26

+ **KIROLDEGIKO KUOTAK IZOZTUTA**
+ TOPIC BISITATZEKO AUKERA LUZATUTA
  10.urteurrena dela-eta, etxeetara bidalitako gonbidapenak aurrerago erabiltzeko aukera.
+ **KALE GARBIKETA DESINFEKTATZAILEEKIN**
  Langile gehiago kale garbiketara bideratuta, zerbitzua sendotzeko.

### M27

+ **GAZTEENTZAKO ESKAINTZA ONLINE**
  Topaguneak antolatuta, jolasak, eskulanak eta challenge jarduerak.
+ **KULTURAZ GOZATZEKO AUKERA ETXETIK**
  Argazki eta bideo bildumak, e-liburutegia, euskarazko edukien eskaintza.
+ GARRAIO PUBLIKOA ERABILTZEKO GOMENDIOAK

### M28

**» ERREGE DEKRETU BERRIA (Espainiako Gobernua)**

+ UDALA EGOERA BERRIRA EGOKITUTA
  Bilera telematikoak eta lanaren jarraipena egiteko sistemen antolakuntza.
+ ELKARLANA ETA LANKIDETZA
  Erakundeen arteko lankidetza krisi egoerari eta honen ondorioei modu koordinatuan erantzuna emateko.
+ ISOLAMENDU EGOERARI AURRE EGITEKO GOMENDIOAK

### M29

+ **COVID19 ATAL BEREZIA WEBGUNEAN**
  Herritarren intereseko eta krisiaren inguruko informazioa.

**03 ASTEA**

### M30

+ OBRA GUZTIAK ETENDA
+ **AGENDA KULTURAL INTERAKTIBOA**

### M31

+ **INDAKERIA MATXISTA JASATEN DUTEN EMAKUMEEN ARRETA ZERBITZUA 24 ORDUZ**
  Informazio kanpaina martxan jarri identifikatu gabeko kasuak atzemateko. Zerbitzua 24 orduz hainbat profesionalekin koordinatuta.
+ **TAO-KO LANGILEAK BESTE EGINKIZUN BATZUETARA**
  Zamalanetarako guneen kontrola, pertsonen zaintza eta herritarrei informazioa zain egon behar duten eremuetan: supermerkatuak, okindegiak, elikadura-dendak, farmaziak edota estankoak.

## APIRILA

### A01

+ **AZOKAKO PRODUKTUAK ETXERA**
  2 egitasmo berri ekoizleen produktuak merkatarutzeko.
+ **TAILERRA ONLINE**
  Tolosatzen Eskola Irekiaren baitan 2. tailerra online: Denboraren kudeaketa eta konpromisoa.

### A02

+ **ZAINTZA SAREA TOLOSA MARTXAN**
  Herritarren beharrei erantzuteko laguntza sarea, "Auzolanean Tolosa" boluntario taldearen eta beste hainbat eragileren parte hartzearekin (Gurutze Gorria, DYA, Babes Zibila, Adinkide eta Peñaskal).
+ TOLOTRIBIAL JOKOA
+ IPUIN KONTAKETAK ONLINE

### A03

+ **ZERGEN ORDAINKETA ATZERATU**
  Lehen neurriak: zergen ordainketa atzeratu eta bide publikoaren erabileragatiko tasa okupazioaren arabera kobratu. Neurri berriak aztertzen, bereziki, herritarrei, merkatari eta ostalari eta enpresa ertain eta txikiei laguntzeko asmoz.
+ **ABEGI GAU ETA EGUN ZABALIK KALEAN BIZI DIREN PERTSONAK ARTATZEKO**
+ **KULTURAZ ONLINE GOZATZEKO BALIABIDE GEHIAGO**

**04 ASTEA**

### A04

**» ALARMA EGOERAREN 2. LUZAPENA (Espainiako Gobernua)**

+ **OINARRIZKO ZERBITZUAK BURU BELARRI**
  300 dei baino gehiago Udaten eta Gizarte Zerbitzuak eta Udaltzaingoa herritarrak artatzen eta egoera honen aurrean laguntza osoa eskaintzen.
+ **BABESERAKO MATERIAL GEHIAGO**
  Iurreamendin, saltokietan eta Etxez Etxeko Arreta Zerbitzuan, hilerriko langileen artean eta Udaltzaingoan banatuta.
+ **TOPAGUNEAKO ESKAINTZA ASTE SANTURAKO**

### A07

+ **WHATSAPP ZERBITZUA BERRIA MARTXAN**
  Alkatearekin zuzenean harremanetan jartzeko eta kezkak argitzeko aukera.